

USE 23 EA3

Zilar ioiak kloruro ioiekin batera hauspeatzen dira zilar kloruro moduan ($K_{ps} \text{AgCl} = 1,8 \cdot 10^{-10}$) eta kromato ioiekin berriz, zilar kromato moduan ($K_{ps} \text{Ag}_2\text{CrO}_4 = 9,0 \cdot 10^{-12}$)

Kloruro eta kromato ioiak kontzentrazio berean (bakoitzaren kontzentrazioa 0,02M) dituen ur-disoluzio bati zilar nitratoaren disoluzio bat gehitzen bazaio tantaz-tanta:

- Bi gatz horietatik, zein hauspeatuko da lehenengo? Arrazoitu erantzuna.
- Kalkulatu zein izango den lehenengo hauspeatuko den gatzaren anioiaren kontzentrazioa bigarren gatzaren hauspeaketa hasten den unean.

USE 23 UB1

B1. Zilar sulfatoaren (Ag_2SO_4 -aren) disoluzio ase batean, zilar ioiaren kontzentrazioa $0,036 \text{ mol} \cdot \text{L}^{-1}$ da. Kalkulatu:

- Disoluzio horren sulfato ioien kontzentrazioa eta zilar sulfatoaren (1,00) disolbagarritasun-biderkadura.
- 2 L zilar nitrato (aq) 0,05 M eta 2 L sodio sulfato (aq) 0,06 M nahasten badira, (1,00) sortuko al da zilar sulfatoaren hauspeakinik? Arrazoitu erantzuna.